



4 GIZARTEA

Autobus zaintzaileen greba herrian ere nabari da

Erkidego mailan eskola umeak autobusean eta jolas-tokian zaintzen dituzten begiraleak greba egiten ari dira lan hitzarmenaren alde. Lasarte-Oriako ikastetxeetan autobus zerbitzuan izan du eragin handiena eta guraso askok kotxez zein oinez eraman eta ekarri behar izan dituzte seme-alabak Landaberrri edo Sasotatik. Akordioa iritsi ezean, urtarilaren 27tik aurrera greba mugagabera joko dute.

5 ELKARRIZKETA

Diafreo ikastaroa Gurutze Irazustarekin

Diafreo ikastaroa antolatu du Ttakunek otsaileko astelehenean. Gorputzaren bidez, arlo fisikoa, emozionala, mentala eta energetikoa bildu, ikertu eta orekatzen laguntzen duen metodologia da. Gurutze Irazusta herritarrek gidatuko ditu saioak. Gaurtik izena eman daiteke Ttakunen bulegoan.



San Pedro jaiak prestatzeko bilerak

Aurten bi egingo dira eta lehenengoa asteartean 18:30ean



Bilerak egingo diren lekuan burutu zuten udal ordezkariak Jaietan Blai prozesuaren aurkezpena asteazkenean.

Asteazkenean udaleko Festak eta Parte Hartze saileko arduradunek aurkeztu zuten Jaietan Blai prozesua. Herriko festak antolatzeko aurten soilik bi bilera ireki egingo direla azaldu zuen Taxio Arrizabalaga zinegotziak. Horien artean lehenengoa asteartean izango da urtarilaren 28an 18:30ean udaletxe berriko hallean. Honetan parte hartzeko deia luzatu dute.

Taxio Arrizabalaga gazteria, kirola eta festak zinegotziak aurkeztu zuen asteazkenean Alaitz Mendizabal parte-hartze zinegotziarekin eta Xabier Goitia eta Rosa Illarramendi teknikariekin batera San Pedro Jaiak antolatzeko "Jaietan Blai" prozesua.

2012an egin zen hau lehenengo aldiz eta zinegotziak oso positiboki baloratu zituen orain arteko festak "herritarre-

kin batera antolatu direlako". Hala ere, bilera horietan parte hartutako elkarte eta herritarren balorazioan, bilera kopurua gehiegi zela aipatuta, autengoan prozesua aldatzea erabaki dutela azaldu zuen.

"Aurtengo jaiak antolatzeko soilik bi bilera egingo dira, lehenengoa datorren asteartean, urtarilak 28, 18:30ean Udaletxe berriko hallean".

Honetan "nolako jaiak nahi ditugun definituko dugu.

Horretarako aurreko urteetako egitaraua hartuko dugu oinarri, bertako ekintzak eta hauek festarako suposatuta zutena aztertu eta baloratu. Hortik abiatuta, ekintzak positiboki baloratzen diren, aldaketaren bat behar duten, ezabatu eta zerbait berria planteatu behar den... erabakiko dugu".

Bigarrenean berriz, "proposamen zehatzen gainean lan egingo da". Bilera hau otsailean zehar egingo dela aurreratu zuen zinegotziak.

Herriko jaiak antolatzeko lan handia dela azaldu zuen Arrizabalagak eta bere sailarentzat hilabete askotako lana suposatzen duela.

Gonbidapena

San Pedro jaiak adin guztie-

tako pertsona orok gozatzen ditu, bakoitzak bere modura. "Hori dela eta mundu guztiak esateko eta proposatzeko asko du, bakoitzak bere bizi-pen, esperientzia eta egunerokotasunetik".

Horregatik herritarrek gonbidatu nahi ditu udalak topaketetan parte hartzera, "herritarren iritzia eta ikuspegi global batetatik festa parte hartzaile eta anitz batzuk sortzeko".

Herriko elkarten parte hartzea ezinbestekoa dela azaldu zuen zinegotziak "bai festetan ekintzak antolatu ohi dituztenena eta baita gainontzekoena ere. Guztiei gutun bat helarazi bazaie ere, aukera honetaz probestu nahiko genuke hauei ere gonbita luzatzeko".

NTRA. SRA. DE ARANZAZU IKASTETXEA (JESUITINAS)



ATE IREKIEN JARDUNALDIA
JORNADA DE PUERTAS ABIERTAS

URTARRILAK 25, 11:00ETAN

- 0-16 urte hezkuntza: Haurtzaindegia / Haur Hezkuntza / Lehen Hezkuntza / DBH
- Kristau zentroa eta baloreen hezkuntza.
- Itundutako zentroa.
- Eskola eleanitza.
- Haur txoko 07:30etik.
- Eskolaz kanpokoak.
- Jangela.

ALTO DE ERRONDO 121, 20009 DONOSTIA
Tel.: 943 21 23 07

WEB: <http://www.jesuitinasdonostia.com/>

Neure kabuz



Mailu Arruti

Bidea

Banoa oinez, hurrengo harri hartaraino. Banoa oinez, hurrengo zuhaitz hartaraino. Mugak helmuga bihurtuz. Zer pentsatzen ote duzue 25 urte eta gero herrira, etxera, etorri zareten "neska-mutilok"? Zer pasatzen ote da zuen buruetatik intimitate xalo eta soilenean? Hainbestetan amestu zenuten momentu horretan, maiteari helduta ohean esna zaudetenean?

Banoa oinez, hurrengo koskaraino, banoa oinez, hurrengo adar okerrerraino. Mugak helmuga bihurtuz. Beraien bizitzetan txertatu nahi zaituztete. Haur txiki bat bezala eskutik helduta hara eta hona zabiltzate beraiekin. Familia eta lagunekin. Bizitzen irakatsi nahi dizueta sentitzen duzue. Baina jadanik ez dira lehengo tabernetara joaten, ez dituzte lagun, ohitura, eta gustu berdinak. Zuek duela 25 urteko bizitzan utzi zenituzten. Zuek zahartu zarete, eta beraiek ere bai.

Zuen herria ez duzue errekonozitzen. Eraikinak, bideak, trafikoa, teknologia berriak, presa. Denbora gehiegi pasa da.

Kontrako pausoa goaz bidean. Pausoa hartu behar dugu berriz. Arnasak bateratu eta hurrengo harriari elkarrekin begiratu. Muga helmuga bihurtuz. Pauso ona aukeratu elkarrekin eraman ahal izateko. Mugak helmuga bihurtu.

Burua altxa eta beti hor egon den ortzi-mugari elkarrekin begiratu. Ortz-muga helmuga bihurtu. Harainoko bideak Askatasuna izena du. Norabidean asmatzeko ekarriko digu zorientasuna denoi. BIZI.

Zorion agurrak



Conchi

Zorionak Conchi!!
Urtarrilaren 25an zure urtebetetzea da. Muxu haundi bat etxekoan partetik.



Eneritz

Zorionak zure 10. urtebetetze egunean Gaizka, aita eta amaren partetik. Ondo pasa!



Ane

Zorionak Ane, zure 3 urtebetetzean. Muxu handi bat zure familiaren partetik.



Josu

Zorionak gure etxeko ertainari, dagoeneko 15 dira!! Gurasoak, Xabier eta Ane.



Irati

Zorionak printzesa!
Sei txokolatezko muxu handia. Zure familiaren partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.



Jarrai gaitzazue
txintxarri.info eta
twitter eta facebook kontuetan

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Usurbilgo sarreraren pisu handia alokatzen dut. 648 614 769.
- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Harremanetarako telefonoa: 649 526 766.
- Garaje marra alokatzen da Hipodromo Etorbidean. Merkea. 648 614 769

Salerosketak

- Solariu bertikala saltzen dut, lanpara berriekin. Prezio onean eta negoziagarria. 678 582 706 edo 943 370980.

Lan-eskaria

- Etxeko garbiketarak edo pertsona adinduak zaintzen lan egingo nuke. Asteleheneik ostiralera. Externa modura. Esperientzia eta informazioak ditut. 671 265 867.
- Interna, externa modura edota ordura lan

egingo nuke garbiketarak edo zaintzan. Paperak eta esperientziarekin. 650 547 771

- Orduka, asteburuetan edota externa moduan lan egingo nuke garbiketarak edo zaintzan. 642 818 480 edo 633 047 767
- Lan bila nabil. Etxeak garbitu, zaharrak edo haurrak zaindiko nituzke goizetan, igande edo jai egunetan. Harremanetarako 943 404 015 edo 606 661 048 Doris.
- Emakumea eskaintzen da haurrak edota helduak zaintzeko baita garbiketarak lanak egiteko. Orduka lan egiteko prest edo egun osoz. Harremanetarako, 626 88 66 95
- Asteburuetan pertsona helduen zaintzan ariko nintzateke. Paperak eta bost urteko esperientzia. 657 521 345
- Erreferentziak dituen neska lan bila. Etxeko lanak egin edo haur zein pertsona adinduak zaindiko lituzke. Orduka edo interna moduan. Harremanetarako, 628 272 416.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Adur Telleria Imaz, urtarilaren 15ean.
- Mario Perez Cornejo, urtarilak 14.

Heriotzak

- Juana Artola Olloquiegui, urtarilaren 23an, 95 urte zituela.
- Martin Garcia Martin, urtarilaren 21ean, 82 urte zituela.
- Elvira Leforestier Aguirresarobe, urtarilaren 19an, 89 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 24	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Larunbata, 25	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Igandea, 26	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astelehena, 27	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteartea, 28	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteazkena, 29	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Osteguna, 30	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Aldabe, Perkaiztegi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SSS13/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azumendi, Nerea
Eizaguirre, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Aser Ochozola, Jone M.
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpirtarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

ELIZA

Munillaren bisita San Pedro parrokiara

Igandean meza eta sendotzea ospatuko ditu parrokiak



Asteartean, San Pedro elizan lana egiten duten taldeek parrokiara bilera gela bete zuten.

Jose Ignacio Munilla Gipuzkoako gotzainaren bisita izan dute aste honetan San Pedro parrokiak. Gotzainak Gipuzkoako eliztarrak eta parrokiak ezagutzeko bisitak egiten ari da eta duela aste batzuk, Zumaburuko Arantzazuko elizan izan zen. Hainbat ekintzatan parte hartu du eta igandean, parrokiak egingo den sendotze ospakizun eta mezarekin emango dio amaiera bisitari.

TXINTXARRI

Jose Ignacio Munilla Gipuzkoako gotzainak, herrialdeko parrokiak desberdinetara bisita egiten ari da, eliztarrak eta parrokiak funtzionamendua ezagutzeko asmoz. Laugarren artzapez-barrutiko bisitak direla eta duela bi aste Zumaburuko parrokiak izan zen. Aste honetan San Pedro parrokiaren txanda da.

Asteartean San Pedro parrokiak lan egiten duten taldeen berri izan zuen gotzainak parrokiara bilera gela nagusia. Parrokia arteko lantaldeak ere bertan izan ziren, hau da, Zumaburu Arantzazuko Ama Birjina elizarekin batera lanean daudenak.

Caritas, Espetxe Pastoral-tza taldea, Misio taldea, Osasun pastoral-tza taldea... Talde desberdinek herrian zein herriartarrek egiten duten lana azaldu zioten Gipuzkoako gotzainari.

Jose Ignacio Munilla haiei lana eskertu eta ahal izanez gero, hainbat ekintzatan egoteko asmoa agertu zuen.

Bestetik, Lasarte-Orian bizi diren moja kongregazio desberdinekin bildu zen asteazkenean Ama Brigitarren komentuan. Izan ere, Ama Brigitarrez gain, teresiarren edo pasionisten komunitate txiki bat baitago herrian.

Mezak eta sendotza

Gaur, berriz, sendotza egiteko prestatzen ari den gazte eta heldu taldearekin bilduko da ospakizuneko hainbat arlo zehazteko.

Bihar, 17:30ean, Atso-bakar zahar egoitzan meza eskainiko du. Eta igandean bisitari amaiera emateko, San Pedro elizan 12:30ean meza eta sendotza ospakizuna izango dira.

Gainera, San Pedroko parrokiak aipatu digunez, luntx bat izango da amaieran.

Zumabururen ere

Aipatu legez, Jose Ignacio Munilla duela bi aste Zumaburuko parrokiak izan zen.

Honetan ere, Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan lanean dauden taldeekin bildu zen, hitzaldi irekia eskaini zuen, Oriako Karmengo amaren kaperako eliztarrei bisita egin zien eta urtarilaren 12an, igandean Arantzazuko Amaren elizan meza eskaini zuen.

IRAKURZALETASUNA Ipuinak aztertzen

Asteazkenean, irakurle-txokoaren saio berria izan zen Udal Euskaltegi hitzaldi aretoa. Hurbildu ziren herritarrek Alice Munro Nobel saridunaren "Zorion handiegia" aztertu zuten Uxue Alberdiren laguntzaz.

Taldeka liburua osatzen duten ipuin desberdinak landu eta denok batera, haiei iritziak emateko aukera ere izan zuten. "Nahiz eta liburua irakurtzeko denbora askorik ez izan, aztertu eta gero berriro irakurtzeko gogoia ematen du," aipatu digu kide batek.

Irakurle-txokoaren arduradunek jakitera eman digutenez, hurrengo bi saioetan liburuen idazleak izango dira Villa Mirentxun taldearekin solasean aritzeko. Otsailaren 18an, Irati Jimenezekin batera "Nora ez dakizun hori" landuko da eta martxoaren 18an, berriz, "Katu jendea" Eider Rodriguezen laguntzaz.

AMARAUN KLUBA

Maitasuna lantzen ipuinen bitartez

Amaraun klubaren barruan, ikasturte honetan ipuin-kontalari saio bereziak antolatu dituzte. Hauetan hurrengo ipuina entzuteaz gain, sentimenduak lantzen dituzte. Azaroan izan zen lehen saioan haserrea landu zuten. Orain, urtarilaren 30ean, bigarren ipuin-kontaketa izango da eta honetan maitasuna izango da landuko dena.

3-4 urteko haurrei, 2010 eta 2009 urteetan jaiotakoek hain zuzen ere zuzendutako saioa izango da, 18:00etatik 19:00ak bitarte, Amaraun ludotekan egingo dena.

Honetan, erbi handia eta erbi txikiaren istorioa ezagutuko dute "Ezetz asmatu zenbat maite zaitudan" liburuari esker. Baina istorioaz gain, asmakizunak, errepikapenak, begiradak... baliabide izango dira hurrengo maitasunaren sentimendua barneratzeko.

UDALA

Zergen ordainketarako egutegia

Lasarte-Oriako udalak zerga ordainketa egiteko epeak ezarri ditu. Epeak ezarritako egunean bukatuko dira, eta hori larunbata edo jaieguna bada, hurrengo lanegunean.

Ibilgailuen gaineko zerga: martxoaren 1etik apirilaren 15era. Ondasun Higiezinaren gaineko zerga: maiatzaren 15etik ekainaren 30era. Ekonomi jardueren gaineko zerga: urriaren 1etik azaroaren 10era. Zaborren tasa: maiatzaren 15etik ekainaren 30era eta Ibiaren tasa: urriaren 1etik azaroaren 15era.

Ura eta estolderia, 3. lauhilabetekoa: otsailaren 1etik martxoaren 15era, 1. lauhilabetekoa: ekainaren 1etik uztailaren 15era eta 2. lauhilabetekoa: urriaren 1etik azaroaren 15era.

Azoka ibiltaria 1. hiruhilabetekoa: otsailaren 1etik 15era, 2. hiruhilabetekoa: maiatzaren 1etik 15era, 3. hiruhilabetekoa: abuztuaren 1etik 15era eta 4. hiruhilabetekoa: azaroaren 1etik 15era.

Dantza eta baleta: Likidatutako hil bakoitzaren aurreko hilaren 15etik 25era. Zaharren egoitza: likidatutako bakoitzaren ondorengo hilaren 15etik hilabete. Etxe-laguntza: Likidatutako bakoitzaren ondorengo hilaren 15etik 25era eta Babespeko etxebizitzaren egonaldia: Likidatutako bakoitzaren ondorengo hilaren 15etik hilabete.

"Sahara isiltasunaren ahotsa" herriz herri

Kukukako helduen antzerki taldeak "Sahara, isiltasunaren ahotsa" lana antzeztu zuen Azpeitiko Sanagustin kulturgunean aurreko ostiralean.

Azpeitiko Khamar Sahararen aldeko elkarteak antolatutako sentsibilizazio asteari amaiera eman nahi izan zioten lasarteoriatarren antzezlanarekin. Antzerkia baino lehen, afaria egin zuten 60 bat lagunek.

Herriz herri

Lasarte-Oriako taldearentzat

ez da egiten duten mota honetako lehenengo antzezlan. Bi urte dira bederratz lagunek osatzen duten taldea, testua idatzi eta antzerkia sortu zutela Joserra Fatxado antzerki irakaslearen gidaritzapean.

Ailem Etleimidi herrian bizi den saharaiararren laguntza izan zuten orduan antzezlan osatzeko eta oraindik ere, antzezpen batzuetan bera joaten da antzerki taldearekin eta oholtzara igotzen da amaierako testua irakurtzera.

Lanaren estreinaldia herrian egin zuten Kukukakoek baina dagoeneko hainbat oholztan izan dira. Usurbilen, Azkoitian eta Donostian taularatu dute besteak beste "Sahara, isiltasunaren ahotsa".

Aurki Zestoan ere izango dute aukera euren lana azaltzeko taldekideek aurreratu diguten moduan.

Kukukako taldea oso pozik dago antzezlanak izan duen harrerarekin eta oraindik saio gehiago egiten jarraitzea espero du.



Azpeitian egindako antzezpenaren irudia.

UZTARRIA

Eskoletako autobus zaintzaileen greba nabari herrian

Lan hitzarmena berritzeko akordiorik lortu ezean, mugagabea egingo dute greba

Herriko ikastetxeetako autobusetan eta jolastokietan lan egiten duten zaintzaileen greba izan da astelehen, astearte eta asteazkenean. Batez ere autobus zerbitzuan izan du eragina eta guraso askok kotxez zein oinez eraman eta ekarri behar izan dituzte seme-alabak Landaberri edo Sasoetatik. Langileek lan hitzarmena berritzea eskatzen dute eta akordiorik egon ezean, astelehenetik aurrera greba mugagabea izango da. Langileen aldetik Jaurilaritzaren inplikazioa eskatzen da arazoari irtenbidea emateko.

TXINTXARRI

Erkidego mailan eskola umeak autobusean eta jolastokian zaintzen dituzten begiraleak greba egiten ari dira lan hitzarmenaren alde.

Abenduaren 3 eta 5ean egin zituzten lehenengo lan uzteak eta enpresarekin akordiora iritsi ezean, urtarrilaren 27tik aurrera greba mugagabea joko dutela iragarri dute. Astelehen, astearte eta asteazkenean autobus greba egunak izan zituzten. Herrian, Landaberriko guraso batzuk adibidez antolatu egin ziren umeak oinez hipodromoko zubitik eskolara eraman eta ekartzeko.

Herriko ikastetxeei galdetuta, batez ere Landaberriko nabaritu ditu lan uzte hauek.

Ikasketa buruak adierazi moduan, 400 ume mugitzen dira egunero autobusean "eta greba egun hauetan kotxez edo oinez ekarri behar izan dituzte gurasoek eskolara".

Landaberriara igotzeko auto

ilara luzeak sortu ziren aurreko greba egunetan eta aste honetarako egindako greba deialdiarekin arduratuta, ikastetxeak Donostiako udaltzairen presentzia eskatu zuten. "Bertan egon dira trafikoa antolatzen eta horrek lagundu du egoera arintzen".

Horretaz gain, guraso elkarteak sustatuta, guraso batzuek herriko hainbat lekutan umeak jaso eta oinez igo eta jaitsi dituzte ikastetxera. "Ekimena guraso askok esker-tu dute lana dela eta zailtasunak zuztelako umeak ekartzeko".

Guztira zentroan bederatzi zaintzailek egiten dute lan "horietako bat Jaurilaritzako langilea da, ez da Clece enpresakoa eta berak ez du grebarik egin" azaldu du ikasketako buruak.

Sasoeta ikastetxea

Sasoetaren kasuan, bi zaintzaile daude bertan lanean eta hauen greba autobusean soilik nabaritu da.

"Eskolatik gurasoei greba-



Taldeka antolatuta oinez mugitu dira greba egun hauetan Landaberriko ikasleak.

ren berri eman genien eta oinez zein kotxetan ekarri dituzte haurrak eskolara egun horietan". Arazo aipagarriarik ez dela izan azpimarratu du ikasketako buruak.

Langile eta enpresaren artean akordiorik lortu ezean, urtarrilaren 27tik aurrera greba mugagabea izango dela iragarri dute langile eta sindikatuek. Sektoreko enprekin egin zen azken bileran ez zen akordiorik lortu.

Langileen eskakizuna da soldatak parekatzea sektore publikoko kategoria baliokidearekin, eskola-jantokietan bezala, eta baita hau lan-erreformatik blindatzea ere.

2009ko lan hitzarmena

Jasone Larrartek Landaberriko

autobusetan egiten du lan. Langileak adierazi moduan, 2009ko lan hitzarmena dute egun eta "hau eguneratzeaz gain, urtetik urtera Jaurilaritzak enpresari igoera bat aplikatu diola salatzen dugu, diru gehiago eman dio baina langileen soldatetan ez da halakorik egin. Izoztuta daude 2009 urtetik".

Egoera zaila dela dio Larrartek, "erkidegoan guztira 500 langile gara soilik, gehienak emakumeak eta ordu gutxiko kontratuak izaki, ahul ikusten gaituzte enpresek". Euren aldarrikapenekin bereziki eskoletako gurasoen elkartasuna jaso nahiko luke langileek.

"Zerbitzu faltagatik gurasoek salaketak edota kexuak

jartzen badituzte, Jaurilaritza behintzat presionatuta sentituko da langile eta enpresen arteko bileretan aktiboki parte hartzeko. Irtenbidea ahalik eta azkarren bilatzeko ahalegina eskatzen diogu administrazioari".

"Griba mugagabea egiteko deia dago baina langile bakoitzak baloratu behar du zein den bere etxean egoera ekonomikoa eta bat egin dezakeen edo ez, ikusiko da".

Orain arte ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek deitutako greba deialdien jarraipena ona izan dela azaldu dute, batzaz beste emandako emaitzak "%90ko jarraipena Bizkaian, %65koa Gipuzkoan eta %55koa Araban".

Dinbi Banda Euskararen Ginkanako finalean

Euskaltzaileen Topaguneak eta Ekoguneak antolatutako Euskararen Ginkanaren hirugarren edizioan parte hartu du Dinbi Banda herriko batukadak eta lau talde finalistak artean sailkatu da. Bihar, larunbata, San Telmo museoan ospatuko den finalean parte hartuko dute batukadako sei kidek.

Euskaraz eta euskararekin dibertitzeko lehiaketa da Euskararen Ginkana eta 2013an hirugarren urtez antolatu du Ekoguneak Euskaltzaileen Topagunearekin batera. Hirugarren edizio honetan gai nagusia Hizkuntza aniztasuna izan da eta lehen aldiz, taldeka lehiatu ahal izan da.

Finalean 3.000 euro daude jokoan. Ginkanan izen eman zuten taldeek sei proba gairatu behar izan dituztela azaltzen du Jokin Ayerregai-

raik. "Proba pare batean galdara jakin batzuen erantzunak bilatu behar izan genituen, beste proba batean euskara eta beste lau hizkuntza gehiago hitz egiten zekien pertsonak topatu eta hauek hizkuntza ezberdin horiek hitz egiten grabatu behar izan genituen".

Beste proba batean hizkuntza aniztasuna edo kultur arteketasuna oinarri eta euskara bitarteko duen adierazpen kultural bat topatu eta hau aurkeztu behar izan zuten. "Beste batean herrian zehar "Kaixo" hitza 20 hizkuntza ezberdinetan jarri behar genuen eta honen argazkiak bidali".

Azkenekoan berriz, "lehiaketara aurkeztutako beste taldeen artean 3, 2 eta puntu 1 banatu behar izan genituen".



Dinbi Bandako kideek honako argazkia atera zuten probetako bat osatzeko.

Finala bihar

Proba guztietan lortutako puntuak batu eta lau finalistak artean sailkatu da Dinbi Banda, hain zuzen ere, Onddo Beltza, Atarrabiako Karrikaluze euskara elkarte taldea; Algortako Bertso Esko-

la eta Igandeak jai, Gasteizko GEU elkarte taldeekin batera.

Taldeek ez dute zenbat puntu lortu dituzten jakin. Bihar, final handian ere proba ezberdinak egin beharko dituzte eta hauek gidatzearen

ardura Ilaski Serrano aurkeztutako izango da.

Finala 12:00etatik 14:00etara izango da Donostiako San Telmo Museoan eta talde guztia ordezkatzu, batukadako sei egingo dituzte probak.

"Emozioek gorputza baldintzatzen dute"

Gurutze Irazustak gidatuko ditu otsailean Ttakunek antolatutako Diafreo saioak

Diafreo ikastaroa antolatu du Ttakunek otsaileko astelehenean. Honakoa gorputzaren bidez, arlo fisikoa, emozionala, mentala eta energetikoa bildu, ikertu eta orekatzen laguntzen duen metodologia da. Giharren uzkurdurak askatuz, hezurdurari eta artikulazioei berezkoa luketen orekara bueltatzen laguntzea du oinarri. Aldi berean, emozionalki uzkurdura horien esanahia ulertuta, tentsioen jatorria sentitu, ulertu eta zailtasunak gainditzeko baliabideak lantzen ditu. Gurutze Irazusta herritarrek gidatuko ditu saioak.

Maidar AZURMENDI

Diafreo metodoan oinarritutako ikastaroa antolatu du Ttakun kultur elkarteak otsailerako. Astelehenean egingo dira saioak, 3, 10, 17 eta 24ean bi ordutegitan, 15:00etatik 17:00etara eta 17:30etik 19:30era Danok Kideren egoitzan izango dira eta honetara manta eta arropa erosoa eramatea gomendatzen da.

Gurutze Irazusta herritarra arduratuko da metodoa honetan oinarritutako saioak emateaz. Zarautzen esaterako, taldean egiten ditu saioak eta bestela ere, banakakoak. Oinarrian ariketa ezberdinen bidez gorputza berezkoa lukeen ardatzera bueltatzea laguntzen duen metodoa da.

Gorputz osoaren lanketa

Gurutze Irazustak zehatzakoa azaldu bezala "diafreo gorputzaren lanketaren bidez, arlo fisikoa, emozionala, mentala eta energetikoa bildu, ikertu eta orekatzen laguntzen duen metodologia da".

Gorputza bere osotasunean lantzen du diafreoak hasi min edo ezinegon fisikoetatik eta hauen eragile izan daitezkeen urduritasun egoeretara edota barne mintzara.

Metodo hau onuragarria da "muskulaturaren uzkurdurak askatuz, arnasketak landu eta ahotsaren bidea irekiaz, nork bere burua hobeto eza-

gutzeko aukera ematen digu, tentsioen jatorriak sentitu, ulertu eta zailtasunak gainditzeko laguntzen digu. Gure indarrekin bat egin eta gure bizi pozaren jabe egiteko bidean laguntzen gaitu".

Azken helburua lortzeko lanketa luzea beharrezkoa dela dio Gurutze Irazustak. Hala ere, pertsonaren inplikazio mailaren arabera dira ere emaitzak. Saioetan oinarritzeko da egiten diren ariketetan arreta jartzea, arnasketa kontrolatzen ikasi etab.

Gorputza ezagutu

Otsailean bi orduko lau saio egin ahal izango dituzte izena ematen duten herritarrek.

"Hilabete bat denbora gutxi da horrelako lanketa batek ekar ditzakeen onura guztiak ikusi ahal izateko. Horregatik, nire helburua jendeak arnasketa libreagoa eta gorputzeko atal ezberdinak askatu ondoren, norberaren gorputzaren kontzientzia handiago bat izatea ikastaroa amaitzen dugunean".

Urduritasuna, estresa pairatzen dutenentzat "mesedegarria da oso baina orokorrean esan behar da fisikoki, emozionalki, mentalki edota energetikoki eduki dezakegun edozer landu dezakegula teknika honen bitartez".

Bestalde metodologia hau askotan emakumeekin lotu izan da baina "gorputz lanketa ez du zerikusirik generoarekin, denek ditugu gure ezinak ume, gazte, heldu..."



Gurutze Irazustak Danok Kide-ren egoitzan egingo den ikastaroa gidatuko du otsailean.

Bakarka edo taldeka lan egitearen inguruan Gurutzek argi dauka taldekako lanak beste aukera batzuk ematen dituela. "Taldea lanak bakoitzaren bizipenak elkarbanatzeko aukera ematen digu, bakoitzaren espazioa errespetatuz esperientzia trukaketa oso lagungarria eta aberasgarria izan daiteke norbera burutu beharreko bidean".

Bakoitzaren gorputzak dituen blokeoak askatzearen inguruan aipatzen egiten du Irazustak "kontutan izan behar dugu gure egoera psikikoak, emozionalak, baldintzatzen duela gure gorputza eta alderantziz".

Blokeo horiek, sarritan min fisikoa eragiten dutenak dira eta gure gorputzaren jarrera moldeatzen dutenak.

Izan ere, giharrek katean funtzionatzen dute eta lepoko mina behin kenduta, besoan hasten gara sentitzen etab. Diafreoak katean, uzkurdurak askatzearen eraginez sor daitzekkeen gelditzeko lana ere egiten du.

Diafreoan gehiago sakontzeko Malen Cirerolen artikulazio gomendatzen du Gurutze Irazustak. Aldi berean, ikasta-



Giharren uzkurdurak askatzea da egin beharreko lanetako bat.

roan izena ematera animatzen ditu herritarrek.

Izena eman

Ikastaroan parte hartzeko aurrez izena eman beharko da

gaurtik Ttakuneko bulegoan eta urtarilaren 31 bitartean.

Ikastaroak 22 euroko kostua izango du eta bazkideek berriz, 20 euro ordaindu beharko dituzte.

MAiTE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Krisi garaian,
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,
gure prezioetan!

Foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu



Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

ATLETISMOA.

Igandean Nazioarteko krosaz gozatzeko aukera

Ohiturari jarraikiz, urtarri-laren azken igandean, urtarriaren 26an, Donostiako Nazioarteko krosaz gozatzeko aukera izango da Hipodromoan.

59 urte dira, estatu, nazioarteko eta lurraldeko atletak gertutik ikusi ahal ditugunak. Lehia handiak ikusi dira bertan eta aurten ere ikuskizun ederra izango dela iragartzen da.

Gizonezkoen mailan, bi keniatar eta bi eritrearren arteko lehia izango da. Kros lasterketan punta-puntan dabilen Japhet Korir, 2010. urtean munduko txapeldun izan zen Joseph Ebuya, Samuel Tsegai eta Goitom Kifle izango dira garaipena eskuratzeko borrokatuko direnak.

Baina ez dira bakarrik izango, Ivan Fernandez arabarrak ere garaipena bilatuko du. Azken bi urteetan podiumean sartzeko zorian egon da eta aurten denboraldi ederra egiten ari da.

Emakumeen atalean, Milcah Chemos keniatarra, Nancy Cheptegai ugandarra, Marta Tigabea etiopiarra edo El Mehdi marokoarra dira faboritoak. Diana Martin, Ale-

sandra Aguilar edo Ainhoa Murua ere izango dira irteerurak.

Lasartearrak

Jubenil mailako lasterketek emango diote hasiera 10:30ean kros jaialdiari.

Infantil, benjamin eta kadete mailako gaztetxoek ere Hipodromoko ibilbidean haien trebezia erakusteko aukera izango dute. Bertan izango dira Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxe-tako haurrak.

Emakumeen lasterketa nagusia, 12:30ean, izango da eta gizonena berriz, 13:05ak aldera.

Maila nagusiekien batera beterano mailako lehiaketak ere izango dira jokoan.

Bestelako ekintzak

Baina lasterketaz gain, beste ahainbat ekintza ere antolatzen dira krosaren inguruan.

Hipodromoko aparkalekuan, esate baterako, ibilgailu klasiko ikusgarrien IV. edizioa izango da ikusgai.

Eta urtero legez, euskal kanping klubak Donostiatik Hipodromora txangoa antolatu du.

PILOTA.

Landa Gipuzkoako txapeldun trinketan

Aritz Solano jubnil mailako azpitzapeldun izan zen

Gipuzkoako trinket txapelketako finalak jokatu ziren Iruran larunbatean. Finaletan bi lasarteoriatar izan ziren lehian. Mikel Landak senior mailako garaikurra lortu zuen; Aritz Solanok berriz, lan ederra egin ostean bigarren postuarekin



Finalistak haien sariekkin. Landa, atzean ezkerreko lehena eta Solano behean, erdian.

TXINTXARRI

Trinket jaialdia izan zen larunbata arratsaldean Irurako Ametsa trinketan. Maila desberdinetako Gipuzkoako txapelketako final eta finalurreko jokatu ziren. Finaletan bi herritar, Aritz Solano eta Mikel Landa. Jubnil mailan, Intza K.E.-ko Aritz Solano txapeldunorde izan zen Mikel Imaz pilotari urnietarraren aurka 35-32 galdu ostean. Mikel Landa herritarrek ordea, senior mailako txapela jantzi zuen, 40-18 irabazita.

Senior mailako finalean, Landak Astigarragako Xabier

Barandiaran izan zuen aurrez aurre. Mikel Landa Intzako pilotaria izan arren, Usurbilgo klubean jokatzeko du utzita.

Herritarrek uneoro hankapean ibili zuen aurkaria azken emaitzak, 40-18, argi erakusten duen bezala.

Partida ederra

Bestalde, jubnil mailan, partida oso gogorra izan zen Solano eta Imaz urnietarraren arteko, agonia handikoa zenbait unetan.

Ezin zaio bainarik jarri Solanoren neurketari, irabazten hasi arren, Imaz aurkaria aurretik joan zen uneoro.

Partzialak herritarren aurkakoak izan arren (25-17/30-22), ez zuen amore eman, lanean jarraitu eta emozioa izan zuen partidaren azken txanpak. Aurretik ere jarri zen 31 eta 32, baina Imazek jantzi zuen txapela.

Intzako entrenatzaileak Joxe Felix Solanok aipatu digunez, "nahiz eta ez gailendu, lana edeki egin zuen eta Urnietako jokalaria estu ibili zen azkenean".

"Bertan zeuden trinket adituek asko gozatu zutela eta partida ikusgarria izan zela aipatu zuten," gaineratu du entrenatzaileak.

KIROLAGENDA.

FUTBOLA

Larunbata 25

Michelin, 10:30ean
Ostadar B-Usurbil I. infantil

Michelin, 12:00etan

Ostadar-Antigua Luberri
I. Jubnila, Igoera

Felix Garin, Donostia, 12:00etan

SANSE-Ostadar B
I. kadetea, kopa

Michelin, 13:45ean

Ostadar-Internacional
I. kadetea, kopa

Michelin, 15:30ean

Texas Lasartearra-Ontzerri
I. Erregionala, kopa

Herrera, Donostia, 15:30ean

Sporting de Herrera-Texas
Lasartearra I. Jubnila, kopa

Michelin, 17:15ean

Ostadar-Getariako Keta
Erregional Ohorezko maila

Zubieta, Hernani, 18:30ean

Hernani-Ostadar
Jubenil Ohorezko maila

Igandea 26

Cesar Benito, Donostia, 09:00etan
Lengokoak-Ostadar I. infantil

Martutene, Donostia, 10:30ean

Martutene-Ostadar
Infantil Txikia, partaidetza

Berio, Donostia, 12:00etan

Antiguoko-Ostadar
Euskal Liga, Kadeteen Ohorezko maila

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 24

HERRIKO TXAPELKETA

19:45ean, Balerdi-Izkiña

20:45ean, Txindoki-Buenetxea

Eskolapioak Tolosa, 20:30ean

Hirukide Plomix Fronton kafetegia-
ISU Leioak Gipuzkoako Liga

Larunbata 25

HERRIKO TXAPELKETA

09:15ean, Arkupe-El Punto

10:15ean, Viña del Mar-Aritz

11:15ean, Ilargi-Trumoi

12:15ean, Izarra-Indaux

Kirolegia, 18:00etan

Aldaz H.K.-Elorrioko Buskantza
Nazional III. maila

SASKIBALOIA

Larunbata 24

Kirolegia, 16:00etan

Ostadar SKT-SUMMA Aldapeta
Nesken junior maila, parte-hartzea

PILOTA

Larunbata 25

Kirol guneko pilotalekua,
16:00etan

Intza-Alde Zaharra
Eskuz binaka, II. kadetea.
Udaberri txapelketa.

Ametsa trinketa, Irura, 17:00etan

Hernani-Intza
Eskuz binaka, jubnila. Trinket txapelketa.

ATLETISMOA

Larunbata 25

Anoetako belodromoa, 10:30ean

Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko gaztetxoek eskolarteko alebin eta infantil mailako proba konbinatuak 2. sailkapen saioa dute.

Anoetako belodromoa, 16:45ean

LOKEko atletik partehartze askeko probak dituzte.

Igandea 26

Hipodromoa, 10:30ean

Donostiako LIX. Nazioarteko krosa izango da.

Idiazabal, 12:00etan

Hainbat herritarrek Idiazabalgo XXXIV. Herri Krosean parte hartuko dute.

IGERIKETA

Larunbata 25

Ordizia, Igartzia, 16:00etan

Buruntzaldea IKT-ko igerilariek
Errendimenduko Ligako

4. jardunaldian parte hartuko dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 25

Atsotakar parkea, 11:00etan

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako infantil eta alebinek saioa dute.

Igandea 26

Usurbil, 09:30ean

Hainbat herritarrek Irasis BTT
2014 proban parte hartuko dute.

Ispaster, 09:30ean

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako gazteek ziklo-kros denboraldiko azken proba dute,

XXV Ispasterko Udala Sari Nagusia.

Antonio Elortza belodromoa, 09:45ean

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako gazteek pistako Gipuzkoako klubaren kopako bigarren jardunaldia dute.

**ERRUGBIA**

Larunbata 24

Asti, Zarautz, 11:00etan

Beltzak Ostadar Gure Etxea-
Hernani Euskal Liga, kadeteak

Gasteiz, 11:00etan

Gaztedi-Beltzak Ostadar Jalai
Eskolarteko Infantilak

Gasteiz, 12:00etan

Gaztedi-Beltzak Ostadar Jalai
Infantil federatua



Igandea 26

Michelin, 10:30ean

Beltzak Ostadar Jalai eskolako alebinek eta benjaminen Topaketa izango dute.

BOLA-JOKOA

Igandea 26

Olaberri, 10:00etan eta 16:30ean

Ostadar SKT-ko bola joko taldeak bikotekako txapelketaren lehen saioa du.

Agenda

Larunbata 25, 21:30ean, Zulo aretoa



Metal jaialdia

Unbreath eta herriko Gabezia taldeen eskutik metal musikaz goatzeko aukera izango dute zaletuek. Unbreath talde bilbotarrak Modern Death Metala eskainiko du bere abeslari Neska'RdKore buru duela. Bestalde, Lasarte-Oriako Gabezia taldearen Alt. Metala ere entzungai izango da aretoan. Sarrera, 4 euro.

Andoain

Pailazoak

BASTERO KULTURGUNA

Larunbata 25, 16:30 eta 19:00etan
Pirritx, Porrotx eta Marimototsek "Bizi poza" ikuskizuna eskainiko dute. Sarrera, 5 euro.

Astigarraga

Antzerkia

KULTUR-ETXEAN

Igandea 26, 20:00etan
Borobil teatroak "On egin" haurrentzako antzerkia eskainiko du. Sarrera, 2,5 euro.

Literatur solasaldia

UDAL LIBURUTEGIA

Astelehena 27, 19:30ean
Isaac Rosa idazlearen "La habitación oscura" liburua aztergai izango da. Gaztelaniaz.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 24, 22:00etan
Helduentzako zinea, "Vivir es fácil con los ojos cerrados" filma eskainiko da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 3,40 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 26, 17:00etan
Haurren zinea atalean, "Frozen. El Reino del Hielo" filma izango da. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,20 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 26, 19:30ean
Helduentzako zinea, "Vivir es fácil con

los ojos cerrados" filma eskainiko da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,40 euro. Gaztelaniaz.



Aurkezpena

VILLA MIRENTXU

Ostirala 24, 19:00etan
Lasarte-Oriako Gure Esku Dago lantaldearen aurkezpena egingo da.

Ipuin-kontalaria

HAUR LIBURUTEGIA

Osteguna 30, 18:00etan
Lur Usabiagak ipuin-kontaketa egingo du.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Urtarrila bukaera arte

Paco Altuna herritarren Lasarte-Oriako hainbat eraikin zaharretako maketak erakusgai jarri ditu.



Hernani

Ipuin-kontalaria

BITERI KULTUR-ETXEA

Astearte 28, 17:30ean eta 18:00etan
Apaxik bi ipuin saio eskainiko ditu, bata 17:30ean, 3-4 urtekoentzat, eta bestea, 18:00etan, 5-7 urtekoentzat.

Usurbil

Kantu-jira

MIKEL LABOA PLAZA

Larunbata 25, 20:00etan
Kantu-jira Usurbilgo kaleetatik barrena.

Herritarren txokoa

Txuri urdin eta babarrun jana

Zabaleta Auzolaneko lagunek Txuri urdinera irteera antolatu dute urtarri-laren 25erako, larunbata. Honetan parte hartu nahi duten ume eta gaztetxoak auzoko plazan egon beharko dira goizeko 10:00etan.

Ondoren, babarrun jana antolatu dute Xirimiri elkarteak. Honetan parte hartzeko aurrez izena eman behar zen. Zabaletako bizilagunek ekintzetan parte hartzera deitzen dituzte bereziki auzotarrak.

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da gaur, urtarri-laren 24an, ostirala, arratsaldeko 17:00etan.

Odol-ateratzeak

Odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan urtarri-laren 27an, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odola ordezkazezina da eta!

Marrazki eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkartek jakinarazten du, marrazki eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiralean dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxe 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan da. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa. Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteak lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaian garaioak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gutxi gutxi dutez aurrera ateratzen da. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidetan.

Hemeroteka

Duela 1095 ale

Ramon Sarobe eta Alberto Gisasola herritarrei buruzko erreportajea egin zen TXINTXARRIN.

Alberto Gisasolak Paris-Brest-Paris proba irabazi eta marka berria ezarri zuen, 43 ordu eta 20 minutu. Ramon Sarobek, berriz, 1989. urtean

185 aldiz igo zuen Ernio mendia Lasarte-Oriatik abiatuta. Biekin elkartu zen TXINTXARRI haien zaletasunei buru gehiago jakiteko.

Sarobek lehengo 1985. urtean egin zuen Lasarte-Oriatik Erriorako bidea, 20 km eta 5 metro. Urte hartan 12 aldiz joan zen eta urtero kopurua handitzen joan zen, 1989. urtean 185 aldiz izan zen eta egun batean bitan egitera ere iritsi zen.

Joan-etorria leku desberdinetatik egiten zuela aitortu zuen elkarriketan. Elikadura asko zaintzen ez zuela aipatu zuen eta mendira joatean kaloria zituen elikagaiak jaten saiatzen zela aipatu zuen. Eta jubilatuta ere bere zaletasunarekin, mendia jarritzeko asmoa zuela adierazi zuen.

Gisasolari dagokionez, Paris-Brest-Paris proban irabazle izateko pres 10 hilabetetako prestakuntza behar izan zuela jakitera ematen da erreportajearen. 43 ordu eta 20 minutu bizikleta gainean jaitsi gabe egon eta gero beste 100 km. egiteko gai zela onartu zuen. Honen arrazoiak, entrenamendu-saioak eta elikadura zaintzea sasoin egoteko.

Proba honetan parte hartu baino lehen beste lau lasterketa ere egin behar izan zituen, hauek 200, 300, 400 eta 600 km. ziren.

Lasterketako kronika egin eta psikologikoki oso gogorra izan zela onartu zuen. Hala ere, zaletasunarekin jarraitzeko asmoa zuela ere aipatu zuen.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Zahartzaroaz ongi gozatuz

Biyak Bat elkarteak urtean zehar ikastaroak eta hainbat ekintza antolatzen ditu

Lasarte-Oriako Biyak Bat erretiratuen elkarteak oso aktiboa da. Gure herriko erretiratuek ez dute atsedetik hartzen, lehiaketak, txangoak... Urrian zuzendaritza aldatu zuten eta bihar, ez ohiko batzarra dute. Zuzendaritzako Exiquio Perez eta Manuel Ramonekin bildu gara zuzendaritzari eta elkartearen egiten diren gauzen berri jakiteko.

Nerea EIZAGIRRE

Urrian Biyak Bat elkarte-ko zuzendaritzan haize berriak sartu ziren. Exiquio Perez lehendakariak azaldu digunez, "zuzendaritza berria osatu behar genuen. Manolo Urdanpilleta, Jose Mari Bardaji, Javier Zabala eta Paco Hitak urte asko zuzendaritzan egon ondoren, lana beste batzuen esku uztea erabaki zuten". Ekainean gainera, Meritxe Galdos lehendakariaren heriotza izan zen eta "galera handia izan genuen orduan. Guztia desorekatu zuen".

Hauteskundeak urriaren 16an egin ziren. 280 pertsona bildu eta bertan bost kide berri onartu ziren, "bost emakume hauek onespen osoa izan zuten. Sartu ziren bosten eta geratzen ginen lauren artean lanak banatu genituen".

Era honetara, lan talde berria osatu zen: Exiquio Perez lehendakari, lehendakari-ordea Adela Manso, idazkaria Nicomedes Diez, diruzaina Manuel Ramon eta batzordekideak, berriz, Eladino Ferreirra, Maria Jesus Olazabal, Esperanza Martinez, Maria Arranz eta Maria Purificación Rodriguez.

Lan taldeak orain arteko planteamendua mantenduko du.

"Egutegi bat dugu urtean zehar eta ekintza horietatik batzuk ezingo ditugu egin arazo ekonomikoak direla eta. Guk jasotzen dugun laguntza handia da. Batez ere, Udala eta Gipuzkoako Foru Aldunditik hartzen ditugu, baina bertan ere laguntzak murriztu dira eta zaila da. Hala ere, orain arte zeuden ekintzak mantentzen

saiatuko gara," adierazi du Exiquio.

Era honetara, oroimen ikastaroa ezin dutela egin aipatu digute, "Osakidetza eta Eusko Jaurlaritzaren diruaz ordaintzen zen begiralea, baina murrizketak direla eta, zerbitzu hori bertan behera utzi dute".

Bestalde, jende faltagatik ere hainbat ekintza kolokan daude, "ehoziriak eta puntua egiten zuen taldea ez da ia batzen. Sukalde ekintzetan ere urte asko daramatzan jendea dago. Baina kostatzen zaigu berriak etortzea".

Lan handia egiten dute zuzendaritzan. "Bulego bat da, besteak bestela. Baina denetarik dugu. Orain, ekintza berriak jarri edo daudenak aldatzeko gaude lanean". Manuelek azpimarratu legez, "batzuk lan egiten dugu besteek zahartzaroaz gozatu ahal dezaten. Hau borondatezko lana da, ez da ezer irabazten eta ordu dezentegiten dira lan".

Ekintzak eta zerbitzuak

Yoga, gimnasia, aerobik, eskulanak, abesbatza, bingoa edo mahai-jokoak. Hainbat ekintza antolatzen ditu astean zehar Biyak Bat elkarteak, baita dantzaldia hainbat asteburuetan ere.

"Bingo, mahai-joko edo karta jokoen zaletu asko dago. Baina orain partxisa bultzatu nahi dugu," aipatu dute.

Ekintza batzuk elkartearen bertan egiten dituzte, baina beste batzuk aerobik eta gimnastikaren kasuan esate baterako, kiroldegian egin behar dituzte.

"Erretiratuen etxea bikaina da, instalakuntzak oso onak dira, ez dakit horrelakorik



Exiquio Perez eta Manuel Ramon (atzean) zuzendaritzako beste kideekin Biyak Bat elkartearen bulegoan lanean.

badagoen Gipuzkoan besterik. Baina muga batzuk ditugu, ez dago areto handirik eta aerobik eta gimnasia kiroldegian ematen dira, jendea asko dagoelako," azpimarratu du Exiquio.

Honetaz gain, hainbat zerbitzu ere eskaintzen dizkie elkarteak gure herriko adinduei. Ile-apaindegia zerbitzua, podologia zerbitzua, tentsio hartzea eta urtarilaren 28tik aurrera, zerbitzu berri bat gehituko dute, quiromasajista.

Manuelek azaldu digunez, "beharrezkoa ikusten genuen bazkideen adina kontuan izanik. Proba modukoa da. Baina ona izango dela pentsatzen dugu".

Era berean, urtero Adinduen omenaldi astea antolatzen dute Udalarekin batera. Honetan, bazkideentzat ez ezik herriko jendearentzat ere ekintzak antolatzen dira ibilbide neurtua, adinduen omenaldia, bazkaria... Eta herriko bikoteek haien urrezko etxeak berriz, ospatzeko aukera ere dute. "Aurten 27 bikote izan dira. Egunderrera izaten da ospatzeko eta oso gustura egiten dugu".

Txangoak eta bidaiak

Baina ez dituzte ekintzak herrian bakarrik egiten. Txangoak eta bidaiak ere antolatzen ditu herriko elkarteak.

Txangoak martxorik azarora hilabetero egiten dira eta

urtero, zortzi-hamar egun bitarteko bi bidai egiten dituzte. "Iaz Cadiz aldera egin zen bat eta Parisera ere joan ziren," aipatu du Exiquio.

"Aurten ere bat hegoaldera egingo dugu, baina proiektua da," aurreratu du Manuelek.

Beste elkarteekin lanean

Eta Gipuzkoako elkarteak antolatzen dituen hainbat ekintzetan ere parte hartzen dute.

"San Pedroko mahai-joko eta mugimendu jokoetako txapelkunak urrian Astigarraga, Donostia, Irun, Eibar...beste elkarteetako irabazleekin batzen dira Donostia eta Gipuzkoako txapelketa egiten da," aipatu du Exiquio.

Honetaz gain, urtero Gipuzkoa osoko elkarteak biltzen dituen ibilbide neurtuan ere izaten dira lasarteoriarrak. "600-640 biltzen gara. Elkarte bakoitzeko lau-zortzi kide eta urtero leku desberdin batean egiten da Tolosa, Zumarraga, Beasain. Aurten Altzan izan da".

Aurten gainera, Altzan egin diren abesbatzen topaketetan edo gastronomia txapelketan ere parte hartu dutela jakitera eman dute.

Kide berriak

Egun zuzendaritzako kideek aipatu digutenez, 2500 bat bazkide daude elkartearen. "Urtero egiten da batzordea, baina badago jendea ez dena bi urteetan etorri eta ez

dakiguna berriro etorriko den edo ez".

"85 urte baino gehiago dutenek ez dute kuotarrik ordaintzen. Bada jendea ekintza puntual batean parte hartu nahi duena eta horregatik izena ematen duena," azaldu du Exiquio.

Baina Manuelek aipatu digunez, "normalean erretiratu eta gero, urte batzuk igarotzen dira hona etorri baino lehen. Ni bezalako kasu arraroak kenduta. Batzuk izena ematen dute eta urte batzuk etorri gabe egiten dituzte, gero pixkanaka gerturatu dira".

Elkarteak kide berriak atek irekiak dituztela aipatu dute, "parte-hartzea edo laguntzera etor daitezke".

"Baina muga batzuk ditugu. Ez daitezela guztiak batera etorri," adierazi digute barre artean.

Ez ohiko batzarra

Hau guztiaz gain, bihar, 18:00etatik aurrera, Biyak Bat elkartearen tabernan ez ohiko batzarra izango dela ere jakinarazi digute. "Idazkari berria aukeratu behar dugu. Egun dagoenak arazo pertsonalengatik utzi behar du eta pertsona bat beharko genuke".

Honetaz gain, ekintza berriak aztertu eta zentroan egiten diren ekitaldiei buruz mintzatuko dira. Zuzendaritzako kideak bazkideak gonbidatzen dituzte batzarrera.



**ELECTRICIDAD
ARREGUI**

www.electricidadarregui.com

**ETORRI GURE
ESKANTZA BEREZIAK
IKUSTERA!**

**LIQUIDAMOS
PRECIOS**

12 MESES SIN INTERESES*

TAE 0%

299€

479€

399€

469€

349€

479€

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361080 • Tel./ Faxe: 943 372521